



SANTA FE JAIAK

HERRITARRENTZAT OHARRAK

ZALDIBIKO UDALA
(Gipuzkoa)

Herriko jaien inguruan, hainbat ohar dauzkagu zuei jakinarazteko:

TRAFIKOA HERRIGUNEAN:

Urriak 5, osteguna, 18:00etan itxiko da bidea Mediku-Etxean hurrengo goizeko 07:00ak arte

Urriak 6, 7 eta 8an, 11:00etan itxiko da bidea Mediku-Etxean hurrengo goizeko 07:00ak arte

Urriak 11, asteazkena, 18:00etan itxiko da bidea Mediku-Etxean hurrengo goizeko 07:00ak arte

Herrigunean **BADOA** duten herritarrek goitik kontrako norabidean sartzeko behin-behineko baimena izango dute autoa garajea sartu edo ateratzeko.

Kaleko aparkalekuak libra daitezen, **norbere garajeak erabiltzeko deia** egiten dizuegu herrigunean garajea duzuenoi.

GARRAIO PUBLIKOA – AUTOBUSA:

Herrigunea itxita dagoen garaian, **autobusak Arrese edota Biloreko** geltokian hartu zein utziko ditu bidaiariak, **ez da plazan geldituko**.

EDALONTZIAK

Azken urteetan bezala, hondakinak eta kuxidadea murrizte aldera, aurten ere **edalontzi berrerabilgarriak banatuko zaizkizue dohain** herriko taberna eta txoznetan. Erabili eta beraiekin jarrai dezakezue, edo barran bertan utzi. Saihestu beharrekoa edalontziak lurrean galtzea da, helburua berrerabiltzea baita.

ERASO SEXISTAK ETA BESTELAKOAK:

Zaldibian guztiok **festak aske bixitzea nahi dugu**, edozein dela ere gure sexu, arraza edo zaletasuna. Edozein eraso sexisten aurrean nola jokatu azaltzen duten karteltxoak egongo dira taberna eta txozna gunean.



ZALDIBIKO UDALA

(Gipuzkoa)

HONDAKINAK:

Atez ateko egutegia berdina izango da festetan ere, baina normalean baino hondakin gehiago sortu baduzue, **Biloreko ekarpen gunea zabalik** egongo da guztientzat, baita herrigunekoentzat ere, urriaren 6tik 8ra (biak barne).

Plazan edukiontzi (kontenedore) batzuk egongo dira, baina ez dira etxe hondakinak botatzeko, festetako ekintzetako hondakinentzat baizik.

KARROZAK:

Urriaren 11an, asteazkena, mozorro festa izango da arratsaldetik eta horren harira, hainbat taldek karrozak aterako dituzue. Karroza handiak jartzeko autobus geltokia erabil dezakezue. Bi baldintza betetzea eskatzen zaizue: **goizeko 01:00k baino lehen karrozak gordetzea** eta hurrengo egunetan **desmuntatzean hondakinak Garbigunera** (Ordiziara) eramatea.

PETARDOAK:

Ez da lehen aldia petardoekin ondasun publikoak nahiz pribatuak kaltetu direla. Ez guke beste kalte materialik izaterik nahi, are gutxiago inork min hartzerik. Herrira datozen **saltzaileei tamaina handiko petardoak saltzea debekatuko zaie**.

HERRI-ZAINTZA:

Zaldibiako herritarrez gain, inguruko herrietakoek ere gozatu nahi izaten dute gure festez. Begirunez har ditzagun batetik, eta bestetik, eska diezaiegun begirune berbera bertako herritarrekiko eta herriarekiko. **Parke Botanikoa ITXI** egingo da festetan zehar eta gainontzeko lekuetan **zaintza lanak** egingo dira, baita BOTILZAHARRA programa ere.

ONDO PASA:

Festetan ondo pasatzea espero dugu, Festa Batzordeak denontzako lekua izan dadin antolatu ditu eta!

Zaldibian, 2017ko irailaren 29an